



Ekainaren bukaeran kaleratu bazen ere, orain arte ez dugu zuri erakusteko betarik izan. Nolanahi ere, orain arte jende gutxik izan du Munduko Atlas Elektronikoa ikusteko parada. Ez da, beraz, erabateko "primizia", baina inoren begiek urratu gabe ekarri dugu zuregana. Zer da Munduko Atlas Elektronikoa izeneko CD-ROMa? Batetik, izenak berak dioskuna, hau da, CD-ROM formatuan erabili ahal izango duzun munduko atlasa. Eta bestetik, multimediatan munduan *Elhuyarrek* eman duen azken urratsa. Izan ere, aspaldian ekin genion multimedia-arloa lantzeari, eta orain, proiektu berriak buruan ditugularik, eskaintza biribiltzera dator Munduko Atlas Elektronikoa.


**G**enionez, Elhuyarrek ekainaren bukaeran kaleratu zuen "Munduko Atlas Elektronikoa" izeneko CD-ROMa.



Azken urte hauetan informatikak, eta bereziki multimedia-arloak, ukaezineko garrantzia hartu du. Elhuyar duela urte batzuk hasi zen bide hau jorratzen eta aurrerantzean sakontzen jarraitzeko asmoa ere badu. Horiek horrela, iaz *Oinarrizko Atlas Geografiko eta Politikoa* modu klasikoan (hots, liburu-formatuan) argitaratu genuenean, gisa horretako materialak multimedia aplikazioen bidez landu eta euskarri berri horietan jartzeko premia jabetu ginen. Ez dugu liburuen esparrua ezertan ezeztatu nahi izan, baina areago jotzeko egokieraz ohartuta, teknika berriek mapa, argazki, soinu eta testuz osatutako informazioa lantzeko garaian eskaintzen dituzten abantailak aprobetxatu beharra zegoela iruditu zitzaigun. Zuk duzu orain azken hitza, irakurle, egindako aukera egokia ote den zuk zeuk erabaki behar duzu eta.

**Erabilterraza eta ikusgarria**

Hezkuntzarako material osagarri berrien barruan kokatu genuen proiektua; horrek behartu gaitu, beraz, produktu didaktikoa egite-

Munduko Atlas Elektronikoa produktu didaktikoa da; erabilterraza eta ikusgarria, beraz. Hezkuntzarako material osagarri gisa erabiltzeko sortua da eta beraz, erabilgarritasuna da bere ezaugarririk garrantzitsuenak. Informazioan nabigatzeko orduan ez du inolako zailtasunik aurkeztzen, grafismo atsegina du eta informazioa antolatzeko orduan, sinpletasunari eman zaio lehentasuna. Irudi hauetan Atlasean kontsulta daitezkeen hiru pantaila ikus ditzakezue.





Munduko Atlas Elektronikoak informazio-maila desberdinak eskaintzen ditu. Beharren arabera, beraz, oinarrizko datuak edota informazio xehetua eska diezaiokezu zure ordenadoreari. PC eta Macintosh sistemak, biak, onartzen ditu eta ondorioz, ez dizu bateragarritasun-arazorik sortuko. Ordenadorea piztu eta programa ireki orduko, mundua agertuko da zure begien aurrean.

ra. CD-ROMa diseinatzeko garaian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBHko) ikasleak izan ditugu helburu eta haxe da, hain justu, multimedia-aplikazio bat osatzeaz gain, beste ezaugarri batzuk ere betetzera bultzatu gaituen arrazoia. Horiek horrela, erabileraren sinpletasuna, grafismo atsegin eta adierazgarria, informazioaren antolaketa egokia eta aurkezpen argia, atzipen azkarra eta informazioan nabigatzeko aukera dira lan honen ezaugarri nagusiak.

## Munduan nabigatzen hasteko

Sinpletasunari dagokionez, erabiltzaileak dagokion botoian sakatzeari nahikoa izango du interesatzen zaion informazioa eskuratzeko. Produktua 12-13 urteko gazteentzat egin den bezala, laneko tresna atsegin eta erakargarria lortzera jo dugu eta horretarako irudiak erabili ditugu programak une bakoitzean eskaintzen dituen aukerak adierazteko. Hartzailearen jarrera kontuan hartuz, informazioa maila desberdinetako unitateetan antolatu dugu. Alde batetik, oinarrizko informazioa dago (beti eskainiko dena) eta bestetik, informazio osagarria ere emango da (erabiltzaileak eskatutakoan soilik pantailaratuiko dena). Horrela, jakinmin-maila desberdinak asetzea lortuko delakoan gaude.

Arestian esan bezala, diseinua nahikoa sinplea da, eta horri esker, eskatzen den informazioa zuzenean agertzen da pantailan. Horrez gain, erraz pasa gaituzke gai batetik bestera edota munduko punta batetik bestera pantailatan atzera eta aurrera ibili gabe. Erabiltzaile arruntak erosotasuna esaten dio horri, eta informatikako hizkeran, erabiltzailearekiko interaktibitatea deitzen zaio.

## Munduko bazter guztiak zure aurrean

Goazen, bada, nabigatzera. PC edo Macintosh, bi sistemak onartzen ditu Atlasak eta, beraz, bateragarritasun-arazoak behingoz alde batera utziko ditugu. Ordenadorea piztu eta programa irekita, eguzki-sistema agertzen da zure aurrean. Edozein astrotan sakatu eta bere masa, bolumena, dentsitatea, diametroa, etab. azaltzen dira argazki batekin. Eguzki-sisteman jolasean ibili eta gero, Lurrera itzultzeko gogoia ere izango duzu, eta





